

DOMINIQUE PEILLEN. *Gauaz ibiltzen dana...* «Kuliska Sorta».
Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1967.

Bazen ordua 1964'an Domingo Agirre saria irabazi zuen nobela hau ikusteko. Nobeletan, gaiñera, oso hurri gabiltza.

Polizi nobela da. Mugako prolemak eta heriotze bat ditu gai nagusitzat. Aisa irakurtzen da. Paris'en jaio zen ziberotarren seme honek gipuzkeraz eman bai digu bere liburu hau. Labur eta bizi idatzia da; beharbada laburregi ere bai. Bertan ez da aspertzerik, baiña bai bein baiño geiagotan kostako zaigu gaiaren aria jarraitzea, bere kontraera hain laburkia baita.

Ikusten da Peillen'ek baduela dohainik aski nobelagintzarako. Ta euskal literatura horren premia handian dugu.

J. S. M.

